



MANTENTZE-LAN ELEKTRONIKOA

GOI-MAILA



Ziklo honetan teknologia hauek lantzen dira: sistema mikroprogramagarriak, embedded-sistemak, erregulazio eta kontroleko elektronika, sentsoreak, potentzia elektronika eta komunikazio-sareak.

GAITASUN OROKORRA

Tresneria eta sistema elektronikoak –profesionalak, industrialak eta kontsumokoak– mantentzea eta konpontzea, eta horiek mantentzeko prozesuak planifikatzea eta antolatzea, betiere lan- eta ingurumen-arriskuen prebentzio planak, kalitate-irizpideak eta indarrean dagoen araudia aplikatuta.

PRESTAKUNTZA PLANA

1. MAILA

- Zirkuitu elektroniko analogikoak
- Tresneria mikroprogramagarria
- Ahots- eta datu-tresneriaren mantentze-lanak
- Elektronika industrialeko tresneriaren mantentze-lanak
- Laneko prestakuntza eta orientabidea

2. MAILA

- Irrati-komunikazio tresneriaren mantentze-lanak
- Audio-tresneriaren mantentze-lanak
- Bideo-tresneriaren mantentze-lanak
- Tresneria elektronikoak muntatzeko eta mantentzeko teknikak eta prozesuak
- Mantentze-lan elektronikoaren azpiegiturak eta garapena
- Mantentze-lan elektronikoaren proiektua
- Ingeles teknika
- Enpresa eta ekimen sortzailea
- Lantokiko prestakuntza

IRTEERA PROFESIONALAK

Profesional honek telekomunikazio-tresneria eta -sistemak, sistema mikroprozesatuak, banda zabaleko sareak, telematika, irrati-komunikazioak eta audio- eta bideo-tresneria industriala eta profesionala mantentzera eta konpontzera zuzentzen diren zerbitzu-sektoreko enpresa pribatuetan zein publikoetan egiten du lan, norberaren kontura edo besteren kontura.

LANPOSTUAK

- Zirkuitu inprimatuen diseinatzailea eta testeatzailea
- Gailu elektronikoak egiaztatze eta abian jartzeko arduraduna
- Ekipo mikroprogramagarriak egiaztatze arduraduna
- Irrati- eta ikus-entzunezko produkzio-sistemako tresneria egiaztatze arduraduna
- Tresneria elektronikoak eta sare lokalak konpontze eta mantentze teknikaria
- Sistema adimendunen garatzailea (IoT)

